



Testua: **PEP BRUNO**

Marrazkiak: **MARIONA CABASSA**

Itzulpena: **MANU LOPEZ GASENI**

Azal gogorrez koadernatua. 22x22 cm. 32 orrialde.

Marrazkiak koloretan. Hizkuntza hauetan:

-Euskara: "Z familia". Kalandraka-Pamiela

ISBN 978-84-7681-648-6

-Gaztelania: "La familia C". III Premio Compostela

ISBN 978-84-8464-741-6

-Galegoa: "A familia C". III Premio Compostela

ISBN 978-84-8464-740-9

-Katalana: "La família C". Kalandraka-Hipòtesi

ISBN 978-84-937469-7-1

-Italiera: "La famiglia C". Libri per Sognare

ISBN 978-88-95933-33-7

-Ingelesa: "The C family". Books for dreaming

ISBN 978-84-8464-744-7

-Portugesa: "A familia C". Livros para Sonhar

ISBN 978-989-8205-49-0

Salneurria: 13 €



## ALBUM ILUSTRATUEN NAZIOARTEKO III. COMPOSTELA SARIDUNA

# Z FAMILIA

**Goizero aitak gosaria prestatzen du. Amak egunkaria irakurri eta nik kartera prestatzen dudak bitartean. Gosaldu eta gero ziztuan ateratzen gara denok...**

*Etorri eta ikusi, jaun-andreok, neska-mutilok, etorri eta ikusi **Z Familia**ren ikuskizun aparta, paregabea, gaur arte inoiz eta inon ikusi ez dena. Irudimen hutsaren poderioz, sarerik gabe, artifiziorik gabe, amarru eta iruzurrik gabe, egunik goibelenak ere kolorez betetzea lortzen baitute!*

...Izan ere, artista harrigarritz eta piztia trebez betetako karpa bat baino gehiago da zirkua; errealitatea eta irrealitatea gurutzatzen diren espazioa da, beste mundukoa den mundu honetako tokia da: fikzioarena eta magiarena. "Z familia" (zirkua Z ote ?) zirkuko giroa eta egingarriegingaitzaren arteko esanahia maite duen familia da. Eta fantasiarekiko eta errealitate-irrealitate jolas horrekiko grina da posible egiten duena egunerokotasun grisa ilusio eta ametsez betetzea. Z familiak bizimodu normala egiten du, baina irudimenezko uholde horrek kolorez eta aukerez betetzen du; hala, gosaria prestatzea edo lanera joatea benetako abentura bihur daitekeen egun ederretako ametsean bizi da.

Ilustrazioak, teknika desberdinez eginak, koloretsuak eta oso adierazkorak dira. Azken batean, Album Ilustratuen Nazioarteko III. Compostela Sariko epaimahaiak "irudimentsu, original eta moderno" gisa definitu zuen obra.

- **Tematika:** zirkua, haur batek bere familiaz duen ikuspegia
- **Gomendatutako adina:** 6 urtetik aurrera
- **Alderdi azpimarragarriak:** Album Ilustratuen Nazioarteko III. Compostela Sariduna 2010ean
- **Zehar-lerroak:** zirkuko-jarduera, familia harremanak, irudimena, ilustrazio koloretsu eta adierazkorak, irakurketa bikoitza: ikusizkoa eta literarioa

[soltxate@pamiela.com](mailto:soltxate@pamiela.com) | [comunicacion@kalandraka.com](mailto:comunicacion@kalandraka.com)

### PEP BRUNO (Barcelona, 1971)

Filologia Hispanikoan eta Literaturaren Teoria eta Literatura Konparatuan lizentziatua eta Gizarte Lanean diplomatua da. Idazlea eta kontalaria da, ikastaroak eta lantegiak ematen ditu eta liburuekin eta irakurzaletasunarekin zerikusia duten jarduerak egiten ditu. Egun Guadalajaran bizi da, eta hiri horretako Haur eta Gazte Literaturako Mintegiko kidea izan zen. Haurrentzako zenbait album eta helduentzako ipuin bildumak argitaratu ditu. Kanaria Handiko Kabildoko Uharte Liburutegiko Album Ilustratuaren Nazioarteko IV. Saria irabazi zuen.

### MARIONA CABASSA (Barcelona, 1977)

Bartzelonako Massana Eskolan ikasi zuen eta Frantzia osatu zuen bere prestakuntza akademikoa. Grabatu eta ilustrazioko talde-erakusketa batzuetan parte hartu zuen, eta arte eta diseinu ikastaroak ematen ditu. Kataluniako Ilustratzaileen Elkarte Profesionalaren Saria jaso zuen 2003 eta 2009an. Gainera, 2005ean Boloniako Haur eta Gazte Liburuaren Nazioarteko Azokan parte hartzeko aukeratua izan zen eta haurrentzako zenbait albumen egilea da.

